


BETETZE-MAILA | GRADO DE OCUPACIÓN


Betetze-mailaren bilakaera. 2001-2005. Euskadi

Evolución del grado de ocupación. 2001-2005. Euskadi

Lurralde Historikoak / Territorios Históricos



Esparru geografikoa / Zonas geográficas



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

2 005 amaieran plazen % 47,6ko betetze-maila lortu da eta 2004ko emaitzak % 1,6 hobetu dira. 2001-2005 aldiko betetze-mailarik altuena da, eta 2003an erregistratu zen baxuena (% 44,18).

2001eko plazen eskaintza errepikatu izan balitz orainoan, % 59ko betetze-maila lortuko zen, 2001eko % 44,6ko betetze-maila gaindituz (+% 32).

Gipuzkoak lortu du emaitzarik onena eta, zonen arabera, hiriburuak nagusitu dira. Bi kasuetan % 51ko portzentajeak erregistratu dira.

2 005 se cierra con una ocupación anual del 47,6% de las plazas mejorando en +1,6% el resultado de 2004. De hecho, es la ocupación más alta entre 2001-2005 donde el mínimo corresponde a 2003 (44,18%).

De mantenerse invariables las plazas existentes en 2001, hubiese resultado una ocupación del 59%, frente al 44,6% de entonces (+32%).


El mejor resultado corresponde a Gipuzkoa y, por zonas, al conjunto de las capitales. En ambos casos un 51%.

Urteko betetze-mailari erreparaturaz, eskaintako plazen % 47,6 bete dira (+% 1,6). Hirubilekoen arabera, 05-I aldian % 37,2ko betetze-maila erregistratzenetik 05-III aldian % 62,9ko tasara iritsi da. Hirubileko guztietan hobetu dira emaitzak, azkenekoan izan ezik (-% 2,2).

Grado de ocupación anual del 47,6% de las plazas (+1,6%). Por trimestres el índice ha pasado de un 37,2% en I-05 a un máximo 62,9% en III-05. Todos los trimestres mejoran excepto el último (-2,2%).

Betetze-maila esparru geografikoa. 2005. Euskadi eta lurralde historikoak


Grado de ocupación según zonas geográficas. 2005. Euskadi y TT.HH.



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Betetze-mailaren urteko hazkundea esparru geografikoa. 2004-2005. Euskadi eta lurralde historikoak


Incremento anual de ocupación según zonas geográficas. 2004-2005. Euskadi y TT.HH.



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Betetze-mailaren hiruhileko bilakaera. 2005 Euskadi

Evolución trimestral del grado de ocupación. 2005. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailen Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Udan lortu da betetze-mailarik altuena (% 62,9). Gipuzkoak ezagutu du hazkunderik nabarmenena (% 70,4) eta, horren barruan, Donostiak: 2005eko baliorik altuena lortu da bertan, % 76ko betetze-mailarekin.

Siendo el verano el trimestre de máxima ocupación (62,9%), ésta aumenta en Gipuzkoa (70,4%) y dentro de ésta en Donostia-San Sebastián que con un ocupación del 76% ostenta el máximo valor del año 2005.

Bilakaerari erreparatuz, Arabak azkenean lortu du betetze-maila hobetzea (% 44,5), eta, 2001-2003 aldian behera egin ondoren, pixkanaka egonkortzen ari da. Bizkaia da bost urte hauetan bilakaera irregularrena ezagutu duen lurraldea (% 45,7), eta Gipuzkoa da, azkenik, emaitzak urtero hobetu dituen bakarra.

Zona geografikoen arabera, hiriburuetan bakarrik lortu da betetze-maila hobetzea (+% 3,6), nahiz eta ez den plaza-kopurua ugartu. Aitzitik, kostal-dean (-% 0,5) eta barrualdean (-% 1,2) -%7-8 inguru areagotu da eskaintza barrualdean-, okerrera egin da, eta Araban (-% 1,3) eta Bizkaian (-% 2,3) eragin du murrizketa horrek.

Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-jarduera oporraldiak erlaziozaten duen adierazleak garrantzi berezia du eta horren isla dira hiruhilekoen arabera lortutako betetze-mailak. Etengabe egin du gora betetze-mailak eta udan lortu da indize altuena. Turismo-jarduera oporraldiak erlaziozaten duen adierazleari erreparatuz, 2005ean 25,7 puntuko aldea erregistratu da gehienezko eta gutxieneko betetze-mailen artean, eta 2004an 24,7 puntuko izan zen.

En términos de evolución, Álava (44,5%) empieza a remontar su nivel de ocupación tras un período 2001-2003 de descenso y posterior estabilidad. Bizkaia (45,7%) más irregular en el quinquenio, repite en relación a 2004 mientras Gipuzkoa es la única que mejora anualmente.

Por zonas geográficas, el único ámbito expansivo en cuanto a ocupación son las capitales (+3,6%), donde apenas se han incrementado las plazas. Por el contrario, tanto el litoral (-0,5%) como el interior (-1,2%) donde la oferta ha crecido en torno a un 7% y +8% experimentan un ligero retroceso que afecta a Álava (-1,3%) y a Bizkaia (-2,3%).

En el País Vasco, se habla de un cierto componente de estacionalidad en la actividad turística que se ve reflejado en los índices de ocupación trimestral en progresión ascendente hasta alcanzar el máximo en verano. La variación entre la ocupación máxima y mínima como exponente de la estacionalidad ha sido en 2005 de 25,7 puntos mientras en 2004 fue de 24,7.